



FINANTZA ZUZENBIDEA TRAKZIO MEKANIKOA DUTEN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Ines Maria eta Jose Luis BURLADA ETXEBESTE

AURKIBIDEA : I. Izaera.-II. Egitate zergagarria.-1. Kontzeptua.-2. Salbuespenak.-III. Subjektu aktiboa.-IV. Subjektu pasiboak.-V. Zergaren zenbatzea.

I. Izaera

(1) Trakzio mekanikoa duten ibilgailuen gaineko zerga *zuzeneko* tributua da¹. Izaera hori duten ibilgailuen titulartasuna kargatzen du, bide publikoetan ibiltzeko gauza direnak, edozein dela ere euren mota eta kategoria. Ez da posible zergaren kuota bertze pertsona bati eskualdatzea.

(2) Zerga hau kudeatzeko eta eskatzeko *ibilgailuaren zirkulazio baimenean* agertzen den egoitzaren Udala eskuduna izango da.

(3) Zerga hau nahitaez ezarri behar da.

(4) Erreal da, ibilgailuaren gain ezartzen baita. Gainera zerga objektiboa da: ibilgailuaren titulartasuna kargatzen du, subjektuaren inguruabar pertsonalak alde batera utziz (salbu, legean ezarritako salbuespenak).

- Ibilgailuak modu efektiboan zirkulatzen duen edo ez kontuan hartu gabe eskatzen da².

(5) Aldizkako zerga da, zergaldia urte naturala da, salbu urtarrilaren 1a ez den egun batean ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo Trafikoan abenduaren 31a ez den egun batean behin betiko baja ematen zaienean. Zergaldia, kasu horietan, ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

(6) Sortzapena, zergaldiaren lehendabiziko egunean gertatzen da (normalean, urtarrilaren 1ean)³.

II. Egitate zergagarria

1. Kontzeptua

Egitate zergagarria bi inguruabarrek definitzen dute: trakzio mekanikoa duen ibilgailuaren titulartasunak eta ibilgailua bide publikoetan ibiltzeko gai izateak.

¹ Zuzeneko zergen barruan, ondarea kargatzen duten zergen multzoan sartzen da; zergapetzen dira subjektu pasiboaren osagai batzuk: motorrezko ibilgailuak (Ignacio PÉREZ ROYO: *Curso de Derecho Tributario. Parte especial*, -zuzendaria: Fernando PÉREZ ROYO-, Tecnos, 6. arg., 2012, 1009. or.).

² Zerga hau bide publikoetan aparkatzeagatik ordaintzen diren prezio publikoekin batera ematen da (Ignacio PÉREZ ROYO: *Curso...*, *op. cit.*, 1008. or.).

³ Zerga honek, 1990. urtean, zirkulazio zerga ordezkatu zuen (1966. urtean sortua), honen araudia ia osorik hartuz. Zirkulazio zergaren jatorria 60. hamarkadaren hasieran bilatu behar da,artzelona eta Madril ibilgailuak bide publikoetan uzteagatik ordaintzen ziren tasetan zehazki.



Autopropultsatutako ibilgailuak dira (adib., autoak, autobusak, kamioiak, eta abar). Osagai erantsiak ere, ibilgailuen erabilgarritasuna handitzen dutenean (adib. Atoiak)⁴.

Erregistro publikoetan matrikulatuta dagoenean, bertan baja eman gabe, ibilgailua zirkulatzeko gai dela ulertzen da. Behin-behineko baimena duten ibilgailuak eta matrikula turistikoa dutenak ere zergaren menpe daude.

Kasu batzuk *zergapetugabe* daude:

(1) Modeloa zaharra izateagatik, erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, horrelakoentzat bakarrik antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta noizean behin zirkulatzeko baimendu daitezkeenean.

(2) Atoiak eta erdiatoiak euren karga erabagarriak 750 kilo ez baditu gainditzen.

2. Salbuespenak

(1) Kasu batzuk *modu automatikoan* (ez da aintzatetsi behar) *salbuetsita* daude:

(a) Estatuaren, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen ibilgailu ofizialak defentsa nazionalara edo hiritarren segurtasunara lotuta baldin badaude; diplomatikoen ibilgailuak edota Erakunde ofizialen ibilgailuak, legean aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte; eta Tratatu eta Hitzarmenetan aurreikusitako ibilgailuak⁵. Salbuespena ezartzen da ibilgailuaren titularrak izaera publikoa edo berdintsua duelako⁶.

(b) Anbulantziak eta osasun laguntzarako nahiz zauritu edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

(c) Autobusak, mikrobusak eta bertze ibilgailuak *hiriko* garraio publikora zuzenduak, gidaria kontuan hartuta, 9 plaza gainditzen badituzte.

(2) *Subjektuak eskatuta*, nekazaritza arloko ibilgailuak salbuesten dira: Nekazaritzako Ikuskapenaren kartilaz hornitutako traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

(3) *Subjektuak eskatuta*, minusbaliotasuna (% 33 edo handiagoa) duten subjektuen ibilgailuak, eurek bakarrik erabiltzeko direnak. Salbuesten dira, mugikortasun mugatua duten subjektuen ibilgailuak ere. Bi kasutan, ibilgailu *bat* salbuetsita dago pertsona bakoitzarentzat.

⁴ MARTÍN QUERALT, J., eta GARCÍA ROCA, A., *Manual de Derecho Tributario. Parte especial* (zuzendariak: MARTÍN QUERALT, TEJERIZO LÓPEZ eta CAYÓN GALIARDO), Thomson Aranzadi, 5. arg., 2008, 959. or. Halere, Ignacio PÉREZ ROYOREN arabera (*Curso de Derecho Tributario. Parte especial, op. cit.*, 1009. or.) atoiak eta erdiatoiak zergapetzea zergaren izenarekin ez dator bat, ezta bere egitate zergagarriarekin ere.

⁵ Gipuzkoan, zehazki: a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude. b) Ordezkaritza diplomatikoen, kontsulatuko bulegoen, eta atzerriko agente diplomatikoen eta karrerako funtzionario kontsular kreditatuen ibilgailuak, kanpotik identifikatuta badaude eta mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada. Baita ere, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, eta estatutu diplomatikoa duten funtzionario edo kideenak. c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

⁶ MARTÍN QUERALT, J., eta GARCÍA MORENO, A., *Manual...*, *op. cit.*, 959. or.



III. Subjektu aktiboa

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den egoitzaren Udala eskuduna da. Zerga hau ez da Espainiako sistemaren berezitasun bat, baina bai Udalen esku egotea, Europar Batasunaren Estatuetan Estatuaren tributua baita; gainera, hemengo kuotak baino handiagoekin⁷.

IV. Subjektu pasiboak

Zergadunak, pertsona fisikoak, juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak dira, ibilgailua zirkulazio baimenean euren izenean agertzen bada. Ibilgailuaren titulartasun administratiboak du garrantzia; hau da, zirkulazio baimenean nor agertzen den, ibilgailuaren benetako jabea den edo ez alde batera utziz⁸. Horregatik, Legeak titulartasunaren aldaketa Probintziako Trafiko-buruzagitzan izapidetu behar dela ezartzen du.

Bigarren eskuko ibilgailu baten eskuratzailer batek ez badu eskualdaketa Trafiko-buruzagitzan izapidetzen, erreziboak edo ordainagiriak aurreko titularrari eskatuko zaizkio, bera gelditzen da behartuta zerga ordaintzera, salbu saltzaileak Trafikoko Nagusigoari eskualdaketa jakinarazi bazion. Kasu horretan, Udalak ezin dizkio erreziboak bidali. Halere, saltzaileak eskuratzaileraren aurka akzio zibilak egikari ditzake⁹.

V. Zergaren zenbatzea

Legeak gutxieneko zenbateko batzuk ezartzen ditu. Udalak koefiziente bat aplikatuz igo ditzake, 2 ezin da gainditu. Kuota ibilgailu motaren arabera ateratzen da, sailkatuz: A) Turismoak, B) Autobusak, C) Kamioiak, D) Traktoreak, E) Atoiak eta erdiatoiak, F) Beste ibilgailuak (adib., motozikletak).

Kuotak ateratzen dira magnitude ezberdinak kontuan hartuta: zaldi fiskalak (turismoak eta traktoreak), plazak (autobusak), karga erabilgarria (kamioiak, atoiak eta erdiatoiak), eta zentimetro kubikoak (beste ibilgailuak)¹⁰. Estatuan tarifa (kuota, eurotan) da:

⁷ PÉREZ ROYO, I., *Curso...*, *op. cit.*, 1008. or.

⁸ Honela, kudeaketa errazten da, partikularren negozio pribatuak ez baitira kontuan hartzen (I. PÉREZ ROYO: *Curso...*, *op. cit.*, 1010. or.).

⁹ MARTÍN QUERALT, J., eta GARCÍA MORENO, A., *Manual...*, *op. cit.*, 960. or.

¹⁰ FERREIRO LAPATZA, J. J., *Curso de Derecho Tributario. Parte especial*, Marcial Pons, 15. arg., 1999, 795 or. Ikusi, 2.822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra.



Turismoak	8 zaldi fiskaletik beherakoak	12,62
	8tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	34,08
	12tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	71,94
	16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	89,61
	20 zaldi fiskaletik gorakoak	112,00
Autobusak	21 plaza baino gutxiagokoak	83,30
	21etik 50 plazara bitartekoak	118,64
	50 plaza baino gehiagokoak	148,30
Kamioiak	1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28
	1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30
	2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	118,64
	9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30
Traktoreak	16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	17,67
	16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	27,77
	25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	83,30
Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak	1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	17,67
	1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	27,77
	2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30
Bestelako ibilgailuak	Ziklomotoreak	4,42
	125 zk-ra bitarteko motozikletak	4,42
	125 zk-tik 250 zk-ra bitarteko motozikletak	7,57
	250 zk-tik 500 zk-ra bitarteko motozikletak	15,15
	500 zk-tik 1.000 zk-ra bitarteko motozikletak	30,29
	1.000 zk-tik gorako motozikletak	60,58

Udalak kuota igo nahi badu¹¹ -ezin du inoiz jaitsi-, Ordenantza fiskala onetsi behar da. Ibilgailu mota bakoitzarentzat koefiziente ezberdina ezar daiteke. Gainera, multzo bakoitzaren barruan koefizienteak ezberdinak izan daitezke¹².

Udalak, Ordenantzaren bidez *hobariak ezar ditzake*:

(1) 100eko 75era bitarteko hobaria, ibilgailuak kontsumitzen duen erregai motaren arabera, erregai horren errekuntzak ingurugiroan duen eragina aintzat harturik.

(2) 100eko % 75era bitarteko hobaria, ibilgailuen motorren ezaugarrien arabera eta horiek ingurugiroan duten eraginaren arabera¹³.

(3) 100eko 100era bitarteko hobaria, ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik zenbatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna duten ibilgailuetarako. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna halakotzat joko da edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

¹¹ Adierazi den bezala, koefizientearen muga Estatuan 2 da; Gipuzkoan, aldiz, 3. MANZANO SILVAK (*Derecho Tributario. Parte especial* -zuzendaria: MERINO JARA-, tecnos, 2012, 632. or.) adibide hauek jartzen ditu: Estatuan, 20 zaldi fiskaleko turismo bat izateagatik gehienez eska daiteke $112 \times 2 = 224$ €; 25 zaldi fiskaleko traktore batengatik, $27,77 \times 2 = 55,54$ €, etabar.

¹² MARTÍN QUERALT, J., eta GARCÍA MORENO, A., *Manual...*, op. cit., 962. or.

¹³ Gipuzkoako araudian hau gaineratzen da: Hobari hau % 95era arte irits daiteke, motor elektrikoak duten ibilgailuen kasuan. Baldin eta udalerritik 100 milia baino gertuago ibilgailu elektrikoek 3 fabrikatzaile baino gehiago badaude, % 95eko hobaria aipatutako 100 miliako mugan fabrikatutako ibilgailuei bakarrik aplikatuko zaie.



Aurreko letretan aipatutako hobarien gainerako alderdi substantiboak eta formalak Ordenantza fiskalean arautuko dira.

Lehendabiziko eskurapena denean edota baja ematen denean, kuotaren ordainketa hiruhilekoetan zatitzen da¹⁴. Baita ibilgailua, ebatsi dutelako ere, erregistro publikoan behin-behineko baja ematen zaionean.

Gauza eskualdatzeak ez du zergaldia aldatzen, kuota zatitzeko eskubidea ere ez du ematen. Kasu honetan, subjektu pasiboa ibilgailuaren titularra zena urtarrilaren 1ean (edota sortzapenaren egunean) izaten jarraituko du. Udala eskuratzailerari hurrengo zergalditik aurrera kobratzen hasiko da¹⁵.

VI. Zergaren kudeaketa

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena, bilketa eta berrikuspena Udalak egiten ditu, ibilgailuaren zirkulazio baimenean datorren egoitza kontuan hartuta¹⁶.

Ibilgailuaren jabea egoitzaz aldatzen bada, zirkulazio kodeak jakinaraztea eskatzen du, baina arau fiskalak datu hori zirkulazio baimenean ez du behartzen eguneratzera. Zirkulazio baimenean agertzen den egoitzaren udala eskuduna izaten jarraituko du. Aurreko egoitzan tarifa txikiagoak baziren, normalean titularrak egoitzaren aldaketa hori ez du jakinarazten.

Kudeaketa jakinarazpen kolektibo eta, orokorrean, erreziboen bidez egiten da¹⁷. Legeak ez du ezartzen ordainketa egiteko epea, Ordenantzan bilduko da, bestela Bilketa Erregelamenduan ezarritako epeak aplikatuko dira¹⁸.

Zerga kobratzeko berme batzuk daude. Alde batetik, Trafiko Nagusigoari matrikulazioa edota zirkulatzeko gaitasunaren ziurtapena eskatzen diotenenk, aurretiaz, zergaren ordainketa frogatu beharko dute, eta bestetik, Trafikoko Nagusigoek ez dute ibilgailuen eskualdaketa espedienterik izapidetuko, aurretiaz aurreko urtearen zergaren ordainketa frogatzen ez baldin bada.

¹⁴ PÉREZ ROYOK (*Curso...*, *op. cit.*, 1011. or.) dioen bezala, eragina izango du eskurapena lehendabiziko hiruhilekoa igarota egiten bada edota laugarren hiruhilekoa hasi baino lehen baja ematen bada.

¹⁵ MANZANO SILVAK (*Derecho Tributario...*, *op. cit.*, 630. or.) adibide hau jartzen du: Xek 2012ko urtarrilaren 2an ibilgailu bat saltzen du, urte horretan tributua saltzaileak ordainduko du, bera baitzen titularra sortzapenaren egunean, nahiz eta gero zerga likidatu (apirilaren 1etik maiatzaren 31a arte) eta berak ibilgailua ez eduki.

¹⁶ Hau da, zergaren kudeaketa osoa Udalak egiten du, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan ez bezala; hauetan kudeaketa Estatuaren eta Udalen artean banatua baitago (I. PÉREZ ROYO: *Curso...*, *op. cit.*, 1008. or).

¹⁷ Hala ere, Udalek zerga hau autolikidazio erara eskatzeko aukera izango dute.

¹⁸ MARTÍN QUERALT, J., eta GARCÍA MORENO, A., *Manual...*, *op. cit.*, 963. or.